

Joseba Alvarez

.....
Espetxeraturik dagoen Mahai Nazionaleko kidea

Bai Euskarari, bai Euskal Estatuari

■ Joan Mari Torrealdaren *El Libro Negro del Euskara* eta, batez ere, Joxe Manuel Odriozolaren *Hizkuntz, Kultura eta Gizartea* izeneko bi liburu mardul eta osagarriak irakurri ondoren eta hilaren 26an Kontseiluak XXI. Menderako Akordioa aldarrikatzeko antolatutako ekimen erraldoia dela eta, zenbait gogoeta plazaratzeko beharra sentitu dut.

Lehen a. Azken 20 urteotan euskalgintza alorrean eginko lanaren emaitzaren ingurua diagnostiko bateratua lortzea izan da Kontseiluak bere sorreratik lorturiko arrakastarik garrantzitsuenak, zalantzarik gabe. Izan ere, funtsezkoa da euskalgintzan guztion arteko azterketa amankomuna bideratzea aurrera begira finkatu behar dugun lan ildo zehazteko. Eta hori da Kontseiluaren inguruan elkartzaren garen nahia: etorkizunari elkarlanean aurre egitea. Hortan datza hilaren 26an burutuko den ekimenaren garrantzia kualitatiboa, benetakoa.

Bigarrena. Diagnostiko bateratua egin ondoren, benetako lanari ekin beharko diogu guztiok: 1999 urtetik aurrera, benetako «iraultza lasaia» da euskal gizarteak martxan jarri behar duen prozesua, euskarak eta, beraz, Euskal Herriak bizi behar badu, egungo egoera errotik aldatu beharko baitugu. Ezin dugu etengabeko autoafirmazio dinamikatan murgildurik ibili, gure errealitatearen inguruan zalantzak izango bagenitu bezala, edota zalantza ideologiko horiek indartu nahi dituztenei ateak zabalduz. Euskaldunak gara eta kito! Izan ere, hasi da lanean Madrilgo prentsa: «*el pacto de sangre secreto entre ETA y PNV en torno al Acuerdo de Estella gira en torno a la imposición del euskara*»...

Eta «iraultza» baten aurrean gaudela diogu, egungo egoera irauli behar dugulako. Inork seriotan pentsatzen al du euskarak berari dagokion lurralderik gabe aurrera egingo duela? Ukatzen zaizkion espazioak berreskuratu gabe etorkizunari eutsi egingo diola? Nola ulertu euskara euskal kultura eta euskal kurrikuluetatik at? Nola ziurtatuko du Euskal Herriak bere etorkizuna bere buruaren jabe ez den bitartean, bere buruaren erreproduzio mekanismoen jabe ez den heinean? Horretan datza XXI. Mendeko Akordioaren benetako erronka: euskara eta euskal kultura normalizatu daitezten, Euskal Herria da bere osotasunean normalizatu behar duguna.

Eta, iraultza hori «lasaia» dela esaten dugunean, prozesu hori bideratzerakoan erabili beharreko borroka eta lan metodoez ari gara. Helburuak bezalaxe, prozesu sozial horren bilakera irmoa eta tinkoa izango da, baina bortxarik gabekoa, horretarako aukerak aitorzen zaizkigun eta antolatzen uzten zaizkigun neurrian. Eraldaketa soziala, esku-hartze dinamika positiboaren bidez burutzearen aldekoak gara. Herritarrei hitza eta libreki hautatzeko ahalbidea aitorzea da bide demokratikoena baita Hizkuntz Politika alorrean ere.

Hirugarrena. Hilaren 26an *Bai Euskarari* esango dugun nahia euskaldunok geure buruaren jabe izatea bada, horrek, ezinbestean, Euskal Estatu aldarrikatzera garamatza, Estatu baita egun nazioarte mailan onartzen den egituratze politiko subirano bakarra. Estaturik gabeko Nazioak bigarren mailakoak direlako daude martxan munduan hainbat independentzia prozesu. Hizkuntzaz eta kulturaz geure buruaren jabe izateko subiranotasun politikoaz jabetu behar dugu.

Askok esango dute euskara eta euskal kultura ez direla Euskal Estatu baten osagarri eta ezaugarri bakarrak eta arrazoa dute. Baina inork ezin du uka euskara eta euskal kultura euskal errepublikaren bizkarrezurra direla, tresna integratzaile nagusiak direlako.

Ez dago benetako beste aukerarik. Frantzia eta Espainiaren menpeko bigarren mailako erregio, autonomia edota departamendua izaten segitu, gure jardueraren etengabe subordinatuz. Ala, Euskal Estatuaren aldeko apustua egin, Europar bertan beste hainbat herri egin duen moduan. Estatu sortu duten Nazioen artean, inor ez da damutu. Gauza bera esan lezake Estaturik sortzeko aukera izan ez duen Nazio orok?

Laugarrena. Eta nola ez, sortu behar dugun Euskal Estatu horrek egun mundializazioak eta garapen teknologikoak sortuko duen gizarte ereduari aurre egiteko modukoa izan behar du. Hau da, herritar eleanitzez osaturikoa izan behar du. XXI. Mendeko Akordioan elebakartasun pertsonalak ez du inolako justifikaziorik. Ildo horretan txalotu beharrekoa da ikastolek eleaniztasun goiztiararen inguruan bideratu duten plana.

Baina, ildo berean, XXI. Mendeko Akordioan ez du tokirik izan behar diglosia kaltegarri bat baino ez den elebitasun sozialak. Euskal Herria herritar euskaldun eleanitzez osaturik egongo delako, hain zuzen, sozialki euskalduna izango da, UEMAn elkartzaren diren udalerririk euskaldunak diren bezalaxe, nahiz eta bertako herritarrek eleanitzak edo elebidunak izan. Euskal Estatuan, euskara nagusi izango da, ez bakarra.

Bosgarrena. Eta bide horretan kokatzen da Euskal Herritarrok taldeak plazaraturiko *Hitzarmen Nazional Baterako Oinarriak* izeneko proposamena. Lizarra-Garazi Akordioak bere isla nazionalaz gain, herri mailako isla behar duen modu berean, esparru zehatzetakoa behar du. *Euskara eta Euskal kulturaren Lizarra-Garazi Akordioa* da epe laburrean eskuratu beharrekoa. Zalantzarik ez, sortuko den Udalen Biltzar Nazional berriak funtsezko betekizuna izango du aurrera begirako lanetan. Euskara eta euskal kulturarena lehenetarikoa izan dadin, hilaren 26an bilduko garenon (edo zaretan) esku dago. ■



Ur Apalategi



Gabonak, gabonak, gabonak (...)

Ah Gabonak!... Karrika eta hiribide argiztatuak, izai apainduak, oraindik Olentzero osaba Patxi zomorrotuta dela ulertu ez duten haurren begi liluratuak, pelikuletakoak diruditen eskale autentikoak kale kantoi bakoitzean, elur maluta sintetikoak saltokien erakuslehoetan baporizaturik...

Ah Gabonak!... —diot— *Nintendo64*-az hilabeteetan amets egin duen nerabeak amonaren oparikutxa ireki eta pijama berria (hori bai, «urdin arraiduna eta negurako aproposa») dela ikustean egiten duen esker onezko irribarre patetikoa («aja, banekien gustatuko zitzaizula, amonak jakiten du»), laugarren urtez jarraian bizarra mozteko ekipamendu osoa eskaini dioten aitaren krisi existentziala («ohartu al dira azken bi urteetakoak ez ditudala oraindik plastikotik aterata? nor naiz, nondik nator, nora noa, nola bidaiatu —zurezko kutxa luze batean, agian—, zenbat kostatuko zait bidaiak...»).

Ah Gabonak!... —beste behin— telebista programatzailearen nagikeria olinpikoa: sssshhh zasl! fiiuuuu... Lasse Harismaki finlandiarraren 114 metroko jauzia! Vienako orkestra filarmonikoaren loteria eta San Ildefonsoko umezurtzek kantaturiko Straussen Vals ospetsuak (edo alderantziz?), Frank Capraren *Zein ederra den bizitza* klasikoaren berrehungarren berremanaldia (lortuko dute, bai, azkenean bizitza ok eginda amai dezagun!).

Ah Gabonak!... urtean behin bakarrik pizten den tximiniaren inguruan eseri (izan ere, pareta guztiak belzten ditu eta gasa dexente merkeagoa baita) eta aitonaren gerla zibilarekikoak jasan —honek ere berremanaldiei beldurrik ez die, antza—, eta ondoren nola ez, buraso progreen *trantsizioaren garai heroiko* hartakoak —«bai, zuek ez dakizue zer zen hura, Biarritzeraino joaten ginen pelikula pornoak ikustera»—, urte gogorak bai haiek, zer duda... Ah Gabonak!... On dagizuela eta sobratzen zaizuen turroia gorde ongi kongelagailuan. Izan ere, ez da jakiten, beharbada berriz ere programatuko dizkigute Gabonak!

Kornerra

Mikel Elorza

Kanpai hotsa

■ Atzokoa ez zela pena eguna idatzi nuen, eta zotza baino zorrotzago bihurtu zitzaidan errealitatea, Pasaiarantz bideratuz gure begiak. Han ere begi batzuk ikusteko, malkoen kresalaz bustiak, bokalerantz begira, *Marero* noiz azalduko. Pasaiako badia, munduko beste badiak bezala, halako malkoek egina liteke; marinel galduen senideen malkoek gazitua liteke itsasoa. Ez baitu itsasoak indulturik ematen, ez dute izar buztandunek biderik erakusten. Kanpaiak oraindik arriskua jo dute; ez daitezela besterik bihur. Minetik at, beste herri guztietan ere baditugu kanpaiak deika, musika kaleetan, kantu eta abestiak, argi mordoak piztuta, apaingarriak ugari. Kontsumo-orgia bere punturik beroenean. Nola aldatzen diren gauzak, kamarada. Neguko solstizioko erritoak bereganatu zituen kristautasunak, paganismoa irentsi. Orain, merkatua eta kontsumismoa tokia ebasten ari zaizkio kristautasunari. Eliza akelarre bihurtuta ikusteko gaude. Fededun zintzoak sorgin.

Mattin

L A P h I T Z A

